

---

**GASTEIZKO UDALAREN GARDENTASUN  
KONTSEILUAREN IRIZPENA, GASTEIZKO  
UDALAREN GARDENTASUN-  
BETEBEHARREN BETETZE-MAILARI  
BURUZKOA. 2020 ETA 2021EKO  
EKITALDIAK**

[Sarrera](#)

[Irizpena](#)

[Publizitate aktiboa](#)

1. [Printzipio orokorrak](#)
2. [Gardentasun-atariaren egitura](#)
3. [Betebeharrak betetzearen gaineko analisisa](#)

[Publizitate pasiboa](#)

[Ondorioak](#)

## SARRERA

2020ko abendutik ez da Gardentasun Kontseiluaren saiorik egin, hortaz, gaur, Gardentasun eta Edukien Unitateak egindako 2020ko eta 2021eko ekitaldietako **“Gasteizko Udalaren publizitate aktiboaren eta informazio publikorako sarbidearen arloko betebeharrak betetzeari buruzko txostenen”** irizpena eman behar da. Txosten horien edukia sakon aztertu eta gero, Kontseiluko kideok bien gaineko irizpen bateratua egitea erabaki dugu.

Hala, 2021eko maiatzaren 13an, **“Gasteizko udalaren publizitate aktiboaren eta informazio publikorako sarbidearen inguruko betebeharren betetze-mailari buruzko txostena. 2020ko ekitaldia”** argitaratu zuen Gasteizko Udalak, eta 2022ko maiatzaren 6an, **“Gasteizko udalaren publizitate aktiboaren eta informazio publikorako sarbidearen inguruko betebeharren betetze-mailari buruzko txostena. 2021eko ekitaldia”**.

Gasteizko Udaleko Herritarren Parte-hartzearen Araudi Organikoaren 87. artikulua honako eginkizun hau ematen dio aholku-organo horri: *“publizitate aktiboaren arloan eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea babesteari dagokionez Gasteizko Udalak dituen betebeharrak eta konpromisoak betetzen diren zaintzea”*.

Eginkizun hori betetze aldera, Araudi horretako 89. artikulua dio Kontseiluak Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 66. artikuluan aipatzen den **“publizitate aktiboaren eta informazio publikorako sarbidearen inguruko betebeharren betetze-mailari buruzko txostenari irizpena eman”** beharko diola.

*66. artikulua. Gardentasunari eta informazio publikorako sarbideari buruzko betetze-mailaren jarraipena.*

**1. Urte naturaleko lehen hiruhilekoan, txostena egingo da publizitate aktiboaren eta informazio publikorako sarbidearen**

***inguruko betebeharrak aurreko urte naturalean zein neurritan bete diren jakiteko.***

*2. Txosten horrek ondorengo alderdi hauek aztertu eta azalduko ditu, gutxienez:*

*a) Udalak eta 47. artikuluan aipatutako bere menpeko gainerako subjektuek zein neurritan bete dituzten publizitate aktiboko euren betebeharrak.*

*b) Gardentasunaren atarian kontsulta gehien izan dituzten edukiak.*

*c) Informazio publikorako sarbidea izateko eskubidearen erabilera: zenbat eskaera aurkeztu diren; zenbat eskaera ebatzi diren; batez beste zein epetan ebatzi diren; zenbat eskaera onetsi diren oso-  
osorik, zenbat zati batean, eta zenbat beste pertsona bat aurka egonda; zenbat eskaera ezetsi diren, eta zenbat ez diren onartu; zati batean edo beste pertsona bat aurka egonda onesteko arrazoiak, ezestekoak, eta ez onartzekoak; maizen eskatutako informazioa; eta eskatzailearen profila (adin-tartea, sexua, eta eskaeran erabilitako hizkuntza).*

*3. Egindako txostena publizitate aktiboari dagokion informazio guztiarekin batera argitaratuko da.*

Udalaren Gardentasun Kontseiluak aztertu eta eztabaidatu du Txosten horien edukia, eta, ondorioz, honako irizpen hau igortzea adostu du:

## IRIZPENA

Txostenetan gardentasunaren arloko betebeharren betetze-maila jasotzen da, publizitate aktiboaren eta informazio publikorako sarbidearen aldagai bikoitzean, eta informazioa bloke bakoitzean eskatzen den informazioaren arabera egituratzen da.

Jarraian, txostena bereizten den blokeak eta atalak aztertzen dira.

### **PUBLIZITATE AKTIBOA**

#### **1. PRINTZIBIO OROKORRAK**

Ekitaldi horietan ez dago aldaketarik irisgarritasunari, elebitasunari, hizkera inklusiboaren erabilerari, egunerokotasunari eta informazioaren gardentasunari dagokionez.

Deigarria da berrerabilpen- eta interoperabilitate-printzipioan, Open Data atarian argitaratutako artxiboen kopuruaren gorakada. Aztertutako azken ekitaldian, 2019an, 157 ziren; 2020an, berriz, 591ra arte igo zen, eta 2021ean 634 izatera iritsi zen. Hau da, % 300 igo da.

- **Herritarrei emandako informazioa kalitatezkoa, argia eta unibertsalki irisgarria izatearen beharrari dagokionez.**

Kontseilua sortu denetik, bereziki garrantzitsua izan da informazioa argia, irisgarria eta kalitatezkoa izatea. Gardentasun Legearen 5.5 artikulua jasotzen du informazio guztiaren gardentasunaren oinarritzko printzipioa izan behar dela “ulergarria, irisgarria eta doakoa izatea eta desgaitasuna duten pertsonentzat eskuragarri egotea, bitarteko edo formatu egokiek hornitutako modalitatean, irisgarriak eta ulergarriak izan daitezen irisgarritasun unibertsalaren eta

guztientzako diseinuaren printzipioen arabera”. Bestetik, Euskadiko Tokiko Erakundeen legea urrats bat aurrerago doa eta baldintza gisa gehitzen ditu argitasuna eta erraztasuna, baita bideratu nahi den mezua ulergarriago bihurtzeko lagungarriak izan daitezkeen bitartekoak eskaintzea ere; izan ere, 50.5 artikuluan ezartzen du informazio hori “egiazkoa, irisgarria, ez diskriminatzailea, argia, erraza eta zehatza” izan behar dela, eta “herritarrek ulertzeko mezuen bitartez artikulatu” behar dela, “bereziki bideoak, grafikoak, argazkiak, marrazkiak eta orria edo dokumentuaren euskarria ulertzeko beste edozein bitarteko erabiliz, herritarrei emandako informazioaren irismena ulertzen laguntzeko”.

Kontseiluaren azken saioan, hitzez azaldu ziguten Gardentasun Ataria hobetzeko konpromisoaren birformulazioan, atariari 10 ikus-entzunezko edo grafiko berri gehitzeko konpromisoa hartu zela, bereziki didaktikoak.

Konpromiso hori partzialki bete da, 2023ko martxoko dokumentuan ageri den moduan, [“6.2.1 eta 6.2.2 konpromisoen exekuzio-mailaren jarraipena eta ebaluazioa \(datuak zabaltzea eta kudeaketa-mailako gardentasuna\)”](#). Bertan adierazten da, eduki horiei dagokienez, urte hauetan zortzi bideo tutorial gehitu direla guztira webgunera, eta ikusgai daudela Youtuben, herritarrentzat interesekoak diren gaiei buruz (errolda eskuratzea, erregistro elektronikoa, autotramitaziorako bulegoetan ordainketak egitea, online erreserbak udako igerilekuetarako pandemia-garaian edo HUT).

Hortaz, Kontseiluak uste du positiboa dela eduki informatzaile hori egitea. Irizpenaren puntu hau publizitate aktiboari buruzkoa den arren, hau da, webgunean ageri diren edukiei buruzkoa, komenigarria iruditzen zaigu informazioa grafikoagoa izateko eta elementuekin laguntzeko (piktogramak, ikurren erabilera...) beharraren gainean gogoeta egitea, ez soilik webgune batean dagoenean. Herritar-sektore batek ez du sarbiderik komunikazio-iturri horietara eta horiek ere badute administrazioak jakinarazi nahi diena ulertzeko eskubidea. Garrantzitsua da arrakala digitalaren efektuak ekiditeko lan egitea.

Hizkera argiari dagokionez (beharrezkoa den beste elementuetako bat komunikazio argi eta eraginkorrerako, ez soilik webguneko edukietarako, baita tokiko administrazioetik eratorritako informazio, idatzi eta ebazpen guztietarako ere), 2020an zeuden berrikuntzen arabera, komunikazio argiaren proiektua garatzen ari ziren puntu horretan, eta proiektu pilotu batekin hasi ziren, Errolda Unitateko dokumentuak "itzultzeko". Teknikariek jakinarazi zutenez, data horren konpromisoan, lehentasunezkoak ziren edukiak hizkera argira egokitzera bideratutako zereginak. Hala ere, eta barne-mailan gaia landu den arren, emaitzak ez dira agerikoak oraindik. Zehazki, Errolda Unitateari dagokionez, epe luzeko bizileku-baimenik ez duten eta komunitarioak ez diren etorkinen errolda ez berritzeagatik egindako ofiziozko baja-prozedura bati buruz Sindikoaren Bulegora heldu den gai baten ondorioz, Bulegoak proiektu-pilotu horri buruzko informazioa bildu du eta hau da lortu duena:

"Pandemiaren aurretik, Errolda Unitateak bere idatziak aztertu zituen komunikazio argia eta erraza sustatzeko, Herritarren Arretak gonbidatuta, hura izan baitzen prozesuaren sustatzailea. Hala ere, aztertu eta aukeratutako testuetan aldaketa guztiak egin eta gero, prozesua gelditu egin zen. Errolda Unitatea prozesu hori berriz hasteko zain dago".

Hala, aurretik aipatutako konpromisoen jarraipena eta ebaluazioa egiteko dokumentuan, ondorio gisa, besteak beste, legegintzaldiaren amaierara arte (2023ko maiatza) mantendu diren helburu hauek adierazten dira:

- Lehentasunezkoztat jotzea edukiak komunikazio argiaren parametroetara egokitzeko lanak. Horien oinarriak Estrella Montolíoarekin ezarri ziren, 2022ko azaroan udal langileekin egindako lan-saio batean.

Helburu hori lortzeko, beharrezkoa da diziplina anitzeko lantaldea osatzeko baliabideak bideratzea, hizkuntzalaritzan, zuzenbidean, komunikazioan, informazioaren teknologietan eta informazioaren gaiaren arabera beharrezkoztat jotzen diren gainerako profiletan adituak diren pertsonak

osatuta, udala herritarrengana hurbil dadin komunikazio argia, erraza eta eraginkorra lortzeko jarduketak eta lan-metodologiak ezartzen joateko beharrezkoak diren lanak jorratzeko, eta ulertzeko eskubidea bermatzeko. Horixe izan zen 2022ko azaroan Estrella Montolíorekin egindako lan-saioan oinarria.

Horretarako baliabide ekonomikoak behar diren arren, arloan espezialistak direnek diote denbora aurreztu behar dela herritarren arreta zerbitzuetan, eta, hortaz, kostuak. Erabiltzaileek administraziotik jaso duten idatziak zer esan nahi duen azaltzen ematen dute denborarik gehiena zerbitzu horiek.

Hala, batzordeak udalari eskatu dio:

- **Duela urte batzuk hasitako komunikazio argiari buruzko proiektu pilotua atzerapenik gabe berrartzea.**

- **Aurrekontuaren plangintza eta plangintza estrategikoa egitea, udalak herritarrei helarazi nahi dien informazio guztia argia, erraza eta eraginkorra izan dadin lortzeko.**

- **Udal-langileei helburu hori lortzeko oinarrizko gaitasunen prestakuntza ematea.**

- **Lan horien emaitzak epe luzera agertuko liratekeela kontuan izanda, bien bitartean, herritarrentzako hizkera argiagoa eta ulergarriagoa sustatzeko ekintzak egitea (hala nola herritar gehiagorengana heltzen diren komunikazioak aztertzea eta idazketan aldaketa txikiak egitea, ulergarriago izateko).**

## **GARDENTASUN ATARIAREN EGITURA**

Organo honentzat positiboa da Gardentasun Atariarentzako eta Gobernu irekiarentzako sortutako eduki espezifikoak ezabatzea, webgunearen egitura orokorraren barruan sortutako espazioak barne hartzeko.

2020 eta 2021eko txostenetan aipatutako webgunearen berrikuntzari dagokionez, funtzionamenduan sartu da dagoeneko irizpen hau igorri den egunean, eta batzordeak uste du eduki zehatzen bilaketak konplexua izaten jarraitzen duela, esaterako, udal-araudiak.

Batzorde honetako kideek hauteman dute webguneko hainbat esteketako edukia ez dagoela indarrean, edo are, ez dela existitzen.

Puntu honetan, honakoa eskatzen dio batzordeak udalari:

**- Sail edo zerbitzu bakoitzak berrikustea ea webgunean agertzen diren bere erantzukizuneko edukiak zuzenak diren eta beste webgune edo artxibo estatiko batzuetarako estekek behar bezala funtzionatzen duten.**

**- Kanal bat gaitzea udal-langileei egoera horien berri emateko, eta, hala, eskaintzen den informazioa hobetzeko.**

## **2. BETEBEHARRAK BETETZEARI BURUZKO AZTERKETA**

2020 eta 2021eko txostenen edukiari dagokionez, hauteman da urtez urte errepikatu direla ez betetzeak, hortaz, atal bakoitza banaka aztertuz joan beharrean, Batzordeak uste du egokia dela bere gomendio guztiak puntu bakarrean biltzea, eta arauaren eskakizunak betetzen ez ote diren edo Batzordeak berak proposatutako hobekuntzak ote diren kontuan izanda bereiztea, eta errepikatzen den eskaera edo urte honetako eskaera berria den adieraztea. Oinarriari dagokionez, aurreko urteetako izapideetara joko dugu.<sup>1</sup>

2020 eta 2021eko txostenei begira aurten egin diren gomendioetan sartu aurretik, egokia iruditzen zaigu aipatzea urte hauetan zein izan diren udal-gobernuak bete dituen gomendioak.

### **BETETAKO GOMENDIOAK**

Udalbatzaren dedikazio-erregimenari dagokionez, 2021 hasieratik, informazio hori berezko informazio-unitatean txertatu da, batzordeak eskatu zuen moduan.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak ezartzen dituen betebeharrei dagokienez, Kontratazioaren Urteko Plana argitaratu da.

### **AURREKO IRIZPENETAN HAUTEMANDAKO GARDENTASUN ARAUDIAREN EZ BETETZEAK ETA ORAINDIK ZUZENDU GABE JARRAITZEN DUTENAK, ETA GOMENDIO BERRIAK:**

---

<sup>1</sup> [2019ari dagokion Udalaren Gardentasun Kontseiluaren irizpena - 2020ko abenduak 15](#)  
[2018ari dagokion Udalaren Gardentasun Kontseiluaren irizpena - 2019ko ekainak 11](#)  
[2017ari dagokion Udalaren Gardentasun Kontseiluaren irizpena - 2018ko maiatzak 28](#)  
[2016ari dagokion Udalaren Gardentasun Kontseiluaren irizpena - 2017ko ekainak 30](#)

Eguneratutako antolaketa-egiturari dagokionez:

- **Zuzendaritzako lanpostuetan jarduteko eskatzen den profila argitaratzea, legeak eskatzen duen moduan.**

Zuzenbidearen interpretazioa dakarten edo eragin juridikoak dituzten udal-organismoek hartutako hitzarmenei buruzko informazioa.

- **Barne-dekretu edo -instrukzio batek herritarrengan eragina izan dezakeela zehazten duten irizpideak definitzea, dagokion zerbitzuak araudi aplikagarria interpretatzera zuzendutako barne-hitzarmenen publizitateari buruzko proposamen zehatzak aztertzea; udal-politika publikoen prestazioaren moduan edo intentsitatean aldaketa ekar dezaketenak; zerbitzu publikoak eskaintzeko moduari buruzko irizpideak aldatzen dituztenak; edozein udal-zerbitzu edo -prestaziotara sartzeko irizpideak arautu edo moldatzen dituztenak, etab.**

- **Daudekeen datu pertsonalak kendu eta gero, Udalaren webgunean argitara eman daitezela Gasteizko Udaleko Organo Ekonomiko-Administratiboaren ebazpenak, eta batez ere aplikazio zabala izan lezakeen doktrina —kasu partikular horretatik haragokoa— ezartzen dutenak.**

- **Kontu-hartzailatza nagusiaren txostenak, edota Idazkaritza Nagusiarenak publikoak diren bezalaxe, argitara eman daitezela, baita Udal Aholkularitza Juridikoaren txostenak ere, hirugarrenengan ondorioak izan ditzaketen neurrian.**

Testu normatiboak egiteko dossierrak osatzen dituzten oroitidazkiak eta txostenak, bereziki araudiaren inpaktuari buruzko azterketaren oroitidazkia dokumentuari dagokionez:

- **Garrantzi juridikoko informazioaren atalean —behin-behineko onespena jaso duten arauekin eta indarrean dauden testuekin batera— argitara eman daitezela “*testu normatiboak egiteko dossierrak osatzen dituzten oroitidazki eta txostenak...*”**

Urteko Araugintza Planari dagokionez, zeinak hurrengo urtean onesteko igorriko diren erregelamendu-ekimenak jasotzen baititu.

- **Araugintza Plana argitara dadila, Gasteizko Udalaren webgunean edo.**

Sinatutako hitzarmenen zerrendari buruzko informazioari dagokionez, aldean aipamena..., helburua, epea eta abar adierazita, baita sinatutako kudeaketa-gomendioak ere, helburua, aurrekontua, iraupena, betebeharra eta abar adierazita. Txostenetan ez da horri buruzko ezer aipatzen, hala ere, jarraipen-dokumentuan hurrengo eskaera historikoa aipatzen da, baina ez da gauzatu:

- **Akordio horiei buruzko informazioa osorik argitara dadila, 2/2016 Legearen 55. artikulua araber. Hain zuzen ere, egokia litzateke —datu pertsonalak nahiz babestu beharreko enpresa edo elkarten bestelako datuak salbu geratzen direlarik— hitzarmenen zerrendan estekak jartzea, hitzarmen edo kudeaketa-gomendioaren testu osora jo ahal izateko.**

Informazio ekonomikoari, aurrekontuei eta estatistikei dagokienez, hurrengo gomendioa aipatzen da:

- **Ondasunen udal-inbentarioa eguneratzea, 2015etik eguneratu gabe baitago.**

Txostenetan erreferentzia egiten zaie beste bi ez betetzeri, datuak eguneratzea falta delako, eta gomendio hauek jasotzen dira:

- **Ez betetzeagatik ezarritako zigorrak argitaratzea, 2019tik eguneratu gabeak.**

- **Hornitzaileen zerrenda eguneratua argitaratzea, eguneratu gabe baitago 2018tik.**

Langileei buruzko informazioari dagokionez, lanpostu-zerrendei dagokienez zehazki, positiboa da koadro sinoptiko bat argitaratzea planteatu izana hobekuntza gisa, lanpostu-zerrenda ulertzen laguntzeko. Hala ere, txostenean jasotzen da terminoen eta laburduren glosarioa argitaratu den arren, informazioa modu argiagoan eman zitekeela. Hala, honakoa jasotzen dugu gomendio berri gisa:

- **Udal Lanpostu Zerrendaren gainean ematen den informazioa argitzea.**

Tokiko politika publikoei eta zerbitzuen zorroari buruzko informazioari dagokionez, Batzordea webgunearen bidez irisgarria den udal-zerbitzuei buruzko katalogoa egiteko proiektuaren emaitzaren zain zegoen, zeina garapenean zegoen eta informazioa jaso eta sistematizatzeko lehen fasea amaituta zegoen, eta katalogo horren euskarria den eta argitaratzeko aukera emango duen aplikazioa lantzen ari zen (birgaitze-fasean daude lanok). Hala

ere, bai 2020ko txostenean, bai 2021ekoan aipatzen da kalitatezko politikari eta zerbitzuen katalogoari buruzko informazioa falta dela. Hortaz, Batzordearen gomendioa honakoa da:

- **Udalaren kalitatezko politikari buruzko informazio eguneratua eskaintzea.**

- **Udal-zerbitzuen katalogoa egiten amaitzea.**

Organismo autonomoei eta udal-enpresei dagokienez, hauek dira Batzordearen gomendio nagusiak:

- **Datu pertsonalak bereizi ostean, udal-sozietate publikoei eragiten dieten ebazpen judizialak argitaratzea.**

- **Gardentasunaren betetze mailan defiziten bat izan duten organismo autonomoei eta udal-enpresei buruzko datuak eguneratzea: hornitzaileen zerrendak, ordainsariak, urteko kontuak, etab.**

**BATZORDEAK BESTE TESTU NORMATIBO BATZUETATIK SORTZEN DIREN BETEBEHARREI DAGOKIENEZ EGITEN DITUZTEN IRADOKIZUNAK**

*Kontratazio publikoaren arloko legedia*

- **Kontratatzailearen profilean gehitu dadila errekurtsioak aurkezteko aukeraren inguruko informazioa, baita errekurtsioak aurkeztearen ondorioz kontratuak etetearen ingurukoa ere (SPKL 63.3 art.).**

Administrazio-prozeduren arloko legedia

- Udalaren webgunean argitara dadila beraren eskumeneko prozeduren zerrenda, orobat adierazten direlarik horien gehieneko iraunaldiak, baita administrazioaren isiltasunak izango lituzkeen ondorioak ere (39/2015 Legearen 21.4 art.).

**BATZORDEAK PROPOSATZEN DITUEN BESTE GOMENDIO EDO HOBEKUNTZA GEHIGARRI BATZUK ETA GARDENTASUN ARAUDIAK ESKATZEN EZ DITUENAK:**

Gai-zerrendei eta organoek egiten dituzten akordioei dagokienez, bideo-aktei lotuta:

- Sistema bat ezar dadila, bilkuren aktetan hitzen araberako bilaketak egiterik izan dadin, eta, hartara, akta horiek kontsultatzen dituenaren intereseko gaien inguruan udal talde politiko bakoitzak egindako adierazpenak eskuratzea errazagoa gerta dadin.

Eguneratutako antolaketa-egiturari dagokionez,

- Zuzendaritzako langileentzat ezartzen den hautaketa-prozedura publiko egitea, merituen eta gaitasunen printzipioen arabera.

Udaleko alderdi politekoei buruzko informazioari dagokionez, Udalaren Gardentasun Printzipioak honakoa gomendatzen die udaleko alderdi politiko guztiei:

- **Argitara eman dezatela, ahal dela Udalaren webgunearen bitartez, Gasteizko Udalak egiten dien ekarpen ekonomikoaren berriazko kontabilitatea.**

Udaleko alderdi politikoek duten informaziorako sarbideari dagokionez, Udalaren Gardentasun Batzordeak honakoa iradokitzen du:

- **Udaleko talde politikoek programa hauetarako sarbidea izatea: Kontratazio-agenda, fiskalizazioaren ataria eta SI2 diru-sarrerak, eta, aldi berean, SICAP kontsultatu ahal izatea (kontabilitate-programa).**

Halaber, urteko aurrekontuetan, udal-enpresetako langileei buruzko Eranskinean, datuak ez dira homogeneoak. Hortaz, Gardentasun Batzordeak hobekuntza hau proposatzen du:

- **Udal-enpresen aurrekontuaren langileen eranskinean dauden edukien datuak Udalarentzat galdagarriak diren eta indarrean dauden legezko eskakizunetara egokitzea, legedian jasotako ordainsari-kontzeptu bakoitza zehaztuz...**

Bestalde, enpresa publikoetako eta organismo autonomoetako desgaitasuna duten langileei buruzko informazioari dagokionez:

- **Argitara eman dadila, eta eguneratuta mantendu, udal enpresa publikoetan eta udal erakunde autonomoetan lanean diharduten pertsona desgaituen kopuruaren eta portzentajearen inguruko informazioa, eta orobat adieraz dadila zer-nolako lan-harremana duten.**

## **INFORMAZIO PUBLIKORAKO SARBIDEA**

Nabaria da Gasteizko Udalak informazio publikora sarbidea izateko eskaerei erantzuteko egin duen ahalegina. Izatez, 2022 amaieran, hiru soilik geratzen ziren erantzuteke. Jorratzeke geratzen den erronka, eta Kontseilua jakitun da horrek duen zailtasunaz, epe barruan egitea da.

Halaber, Batzordeak adierazi nahi du ondo iruditzen zaiola hiruhilekoan behin egiten den Iradokizunen eta Erreklamazioen Batzordean jasotako eskaeren eta bakoitzaren ebazpenen berri ematea, norbanako horren gaineko kontrola errazten duelako.

Azkenik, 2019an igorritako irizpenean bezala, komenigarritzat jotzen da proposamen batzuk planteatzea, arlo horri dagokion gardentasuna hobetzen laguntzeko:

- **Organismo autonomoetako eta udal-enpresa publikoetako gardentasun-atarian izapide horri buruzko informazioa eskaintzea.**

- **Udal enpresa publikoei nahiz erakunde autonomoei informazio publikorako sarbidea izateko egiten zaizkien eskabideak onartzen ez edo ukatzen direneko ebazpen osoak argitara eman daitezela.**

- **Euskadiko Gardentasun Batzordearen ebazpenak argitara eman daitezela, Udalari, udal enpresa publikoei nahiz erakunde autonomoei informazio publikorako sarbidea izateko egindako eskabideei uko egin izanaren ondorioz aurkeztutako erreklamazioei dagozkienean.**

## ONDORIOAK

Lehenik eta behin, Batzordeak udaleko Edukien eta Gardentasunaren Unitatearen lana eskertu nahi du, haren zeregina ezinbestekoa delako administrazio gardenagoa lortzeko eta Gasteizko Udalak administrazio onari lotuta egiten dituen aurrerapenak ebaluatzeko.

Ahalegin horren emaitza da Gasteizko udalak 2022ko urtarrilean jaso zuen ELoGE zigilua. GJHeKin (Garapen Jasangarrirako Helburuak) bat datozen gobernu onaren, kalitatearen eta berrikuntza demokratikoaren hamabi printzipioko zerrenda batean bikaintasun-kalifikazioa egiaztatzen duten tokiko gobernuentzako Europako saririk altuena da. Modu positiboan baloratzen dugu sari hori zenbait aldiro berritu behar izatea, uste baitugu arlo horretan etengabeko hobekuntzak egiten laguntzen duela.

Legez publikoak izan daitezela ezartzen diren puntuak ez betetzeari dagokionez, aurreko urteetakoak errepikatu direla egiaztatu dugu, beraz, Batzordeak uste du hori zuzendu egin beharko litzatekeela.

Gardentasun Batzordearen arabera, garrantzi berezia duten puntuak hauek dira:

- Zuzenbidearen interpretazioa dakarten edo eragin juridikoak dituzten udal-organoek sinatutako akordioak argitaratzea.
- Gasteizko Udaleko Organo Ekonomiko Administrazioaren ebazpenak argitara ematea, eta batez ere aplikazio zabala izan lezakeen doktrina —kasu partikular horretatik haragokoa— ezartzen dutenak.

- Udaleko Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuak igorritako txostenak argitaratzea, betiere hirugarrenen aurrean eragina badute.
- Udaleko sozietate publikoei lotutako ebazpenak argitaratzea.
- Ondasunen inbentarioa eguneratzea.
- Funtsezkoa da hizkera argia erabiltzea eta komunikazio administratiboa hobeto lantzea.

Halaber, garrantzitsua da zuzendaritzako langileak esleitzeko hautaketa-prozesuaren gardentasunari buruzko iradokizuna kontuan hartzea. Prozesu horretan ari dira lanean eta espero dugu datozen hilabeteetan izatea emaitzen berri.

Gardentasun Batzordearen erabateko adostasunez igorritako irizpena,  
Gasteizen, 2023ko apirilaren 17an egindako ezohiko saioan.